

noaua



SANTUENEA, JAJETAN MURGILTZEKO GOGOZ


Ostiral honetan hasi eta igandera bitarte, ekitaldi ugari iragarri ditu Jai Batzordeak / 12-13 or.

ARGAZKIA: NOAUA!



USURBIL1936

Usurbil 1936
elkartearen ekitaldia,
"oroimenaren soka
eten ez dadin" / 06



USURBIL.EUS

Belaunaldi-erreleboa
sustatzeko
dirulaguntza
deialdia / 08



EKHI MANTEROLA

Orban taldeak bere
lehen diskoa
aurkeztuko du
irailaren 25ean / 14



NOAUA!

Etxebizitza Bulegoak
doako aholkularitza
zerbitzua eskainiko
du / 18



Egipto

IRTEERA 2027ko otsaila

NOAUA BIDAIAK Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 · info@noaa.eus · Hipodromo Etorbidea, 10 · Lasarte-Oria



USURBIL OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



USURBILGO ALBISTEAK KLIK BATEAN

ARGAZKIAK

ALBISTEAK

MOMENTUKO

JARRAI IEZAGUZU SARE SOZIALETAN

www.noaua.eus

@noauaastekaria @noaua Noaua Aldizkaria @noauatb

Faxismoaren aurkako aldarriarekin bat

Ernaik faxismoaren aurka hilaren 14an Donostian eginiko manifestazio jendetsuarekin bat egin zuten hainbat herrikideek. Usurbildarrek ateratako herri argazkia duzue ondokoa. "4.000 gaztetik gora elkartu gara Donostian. Herri bat faxismoaren kontra. Herri bat etengabe askatasunaren alde", jakinarazi dute antolatzaileek.



Ernaik irailaren 14an Donostian faxismoaren aurka antolatutako manifestazioaren aurretik ateratako herri argazkia.

Garbigune mugikorra, Txokoaldera

Irailaren 16ra arte Santuenean izan ondoren, hilaren 17tik 23ra Txokoalden kokatuko du Usurbilgo Udalak garbigune mugikorra. Hilaren 24an ordea, Kalezarrera lekuz aldatuko dute.

Hurrengo errefus bilketa eguna, irailaren 27a izango da.

1955ean jaioetakoak urriaren 24an batuko dira

Aurten ere 1955. urtean jaioetakoak urriaren 24an bilduko dira. Balmasedara egunpasa antolatuko dute. Irteeran parte hartu nahi dutenek irailaren 30a baino lehen eman beharko dute izena. Argibide gehiago, komunikazio bideetatik jaso ahalko da: 675 00 64 45 (Maribi), 615 76 04 58 (Patxi).

Etumeta AEK euskaltegian izena emateko garaia

Euskara ikasteko maila guztiak (A0, A1, A2, B1, B2, C1, C2) eskainiko dituzte. Ordutegi malgutasuna eskainiko dute. Argibide gehiago Kale Nagusia, 43ko egoitzan: astelehenetik ostegunera 11:00-13:00 artean eta 17:30-20:00 artean. Ostiralean, 11:00-13:00 artean. Telefono zenbakia: 607 609 379.

1966an jaioetakoak topaketa, urriaren 31n

Bazkaritarako bilduko dira Saizarren. Bazkalaurretik ordea, trikipotea iragarri dute. Izena emateko 66 euroko ordainketa egin beharko da, nork bere izen-abizenak adieraziz, urriaren 15a baino lehen, kontu zenbaki honetan: ES54 2095 5069 0091 2749 4577 (Kutxabank).



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkarte@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubieda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubieda.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.120 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



GIPUZKOA

Foru Aldundia

Babestutako hedabidea



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Tsssss.... isilik!

Posible ote da? Bai, posible da, surrealista samarra badirudi ere.

Aurtengo udan Donostiako hondartza sarreretan kartelak jarri dituzte: "Uda honetan arnastu eta entzun itsasoa". Erretzea debekatuta dago eta bozgorailuak ere bai, musika entzungailuetatik soilik entzun daiteke. Zarauzko hondartzan gauza bera. Gainerakoetan, bozgorailuena ez da iritsi, baina kerik gabeko hondartzak direla argi adierazten da.

Erretzea debekatzen duten kartelak ikustera ohituagoak gaude. Bozgorailuena, aldiz, berriago izan da niretzat, sorpresa puntu batekin irakurri nuen lehenbiziko aldiz. Baina, pentsatzen jarrita, debekua ulertu dezaket, batzuk musika hondartzan dauden guztientzat jartzen baitute, denek entzuteko moduan. Eta gaur egun entzungailu indibidualak egonda... ba aldamenekoari siesta egiten edo lasai irakurtzen uztea ez dago gaizki.

Egoera horretan, imajinatzen al dituzue "aldamenekoarekin hitz egitea debekatuta" jartzen duten kartel batzuk? Edo "hondartza isila" diotenak? Zaila da horrelako kartelak egon daitezkeela pentsatzea, ezta? Esajeratu samarra, agian? Ba, hondartzan ez, baina autobusetan gertatu da. Posible da.

Lagun batek autobus bidaia baterako txartela erosi zuen



Aldamenean eserita duzunarekin ez hitz egiteko eskatzen du autobus konpainia batek.

eta txartelaren amaieran sei ohar agertzen dira. Azkenekoa beltzez azpimarratuta dago eta zera jartzen du: "Evite, en lo posible, hablar con otros usuarios o por teléfono" (Saihestu, ahal duzula, beste erabiltzaileekin edo telefonoz hitz egitea). Telefonoz hitz egitearena, bueno, batzuk oso altu hitz egiten dute eta haien elkarrizketa guztia entzutea ez da oso eroso izaten. Baina aldamenean eserita duzunarekin ez hitz egiteko eskatzea?

Ez dakit horren azpian zein arrazoi egon daitekeen. Zergatik ez du nahi autobus konpainia horrek jendeak elkarrekin hitz egitea? Jada gero eta jende gutxiagok hitz egiten du elkarrekin garraio publikoan, bakoitza musika entzuteko bere gailuarekin edo mugikorrarekin doalako. Eta oraindik gutxiago hitz

egitea bultzatzen ari al dira? Gure artean erlazionatzeko moduak aldatzen ari direla badakigu, baina horrelako gomendioak (aurki debekuak?) irakurri beharra ere... Ez dakit, lagun baten aitak esaten duen moduan, "atzeraka goaz".

BlaBlaCar kotxeetan eta autobusetan ere isilik eta elkarrekin hitz egin gabe joan behar ote da?

"IMAJINATZEN AL DITUZUE 'ALDAMENEKO-AREKIN HITZ EGITEA DEBEKATUTA' JARTZEN DUTEN KARTEL BATZUK?"

Katekesi taldea, martxan

2. mailatik aurrerako umeak dituzten familiek posta elektronikoz jasoko dute izen-emaite orria eta informazio guztia.

1. mailan apuntatu nahi dituzten familiek aldiz, "salbatoreparrokia@gmail.com" helbidera bidali telefonoa eta izen-abizenak. Gu jarriko gara harremanetan haiekin".

• Izena emateko epea: irailaren 14tik 25a arte.

• Katekesi saioen hasiera: urriak 9 ostirala, 18:00etan.

Udarregiko bertso-eskola

Ohiturari jarraituz, bertsolaritza eskolak antolatuko dira LH3tik DBH4ra. Lierni Rekondo bertsolariak gidatuko du bertso-eskola. "Animatu hitzekin jolastera!", hortxe sustatzaileen oharra.

• Urritik maiatzera.

• Noiz: astelehenero Udarregi eraikinean, 12:30etik 13:30era (LHkoak) eta 13:30etik 14:30era (DBHkoak).

• Urte osoko kuota: 65 euro.

• Harremanetarako: 608 768 539 (Josu).

• Batxillergoko gazteak ostegun arratsaldetan bilduko dira, 16:30etik 17:30era Po-txoenean.



Lierni Rekondo bertsolariak gidatuko du Udarregiko eskola.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

Esperientzia Eskola eta oroimen tailerra

Bi ikastaroak urrian hasi eta ekainean amaituko dira. Izena emateko epea zabalik da bietan.

"Lan mundutik erretiroa hartu eta ikasteko grina" duen 55 urtetik gorakoei zuzendua dago udal gizarte zerbitzuek eskainitako Esperientzia Eskola. Matia Institutuak eta Usurbilgo Udalak antolaturiko saioak asteartero izango dira, 16:00-18:00 artean. Bestalde, Lahar elkargoak eta Usurbilgo Udalak antolaturiko oroimen tailerra memoria landu nahi duten adinekoei zuzendua dago. Bi eskaintzak urritik

ekainera izango dira. Zahartze aktiboa sustatzea dute helburu. Oroimen tailerrean zein Esperientzia Eskolan izena irailaren 25a baino lehen eman ahal da, gizarte zerbitzuetako 943 377 110 telefono zenbakira deituta edo presentzialki, udal zerbitzuon Barrenkaleko egoitza berrian, astelehenetik ostiralera, asteazkenetan izan ezik, 09:00-14:00 artean.

Floxbin kontzertuan

Floxbineko taldekide batek aipatu digun moduan, "bizirik segitzen dugun seinale" argia izango da ostiral hone-tako emanaldia. Salamanca-ko Asistencia Injustificada taldekoekin ariko dira irailaren 18an, arratsaldeko 19:30ean Benta tabernaren atarian. Luzaro, oholtzatik kanpo izan ostean, 2024ko uztailan eskaini zuen metal taldeak Sutegin itzulera emanaldia. "AK!" izenekoak izan zen Floxbin taldeak 2016. urtean kaleraturiko estreina-ko 10 abestiko lana. 2019an argiratu zuten haien azken lana; "Hil arte bizi" izenekoak. Hamarkada honen hasieran, abesti gehiago sortu dituzte.

Txalaparta eskola

Jexux Artze Kultur Elkartek 2026-2027 ikasturterako antolaturiko eskaintzan izena emateko epealdia zabalik da. Telefonoz edo emailaz egin daiteke: 695 716 878 usurbiltxalaparta@gmail.com

Zinemaldi alternatiboa Zubietan

Zinema jaialdi alternatiboko ekitaldi bat Zubietan egingo da. Larunbat honetan, 20:00etan errebote plazan. "Aire!" izeneko ikus-entzuzko lana eskainiko dute.

'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

Txartela

Oraindik urte asko ez dela, urtean behin jaun-nartzeko betebeharrari Pazkoakoa egitea deitzen zitzaien. Kontrola eramateko, txarteltxo bat eskuratu parrokian eta Jaunartzeko unean bertan utzi behar zen, nork kunplitu zuen eta nork ez ziurtatzeko. Ixidro 'Kakusai' Santu-eneako ijitoak txartelik ez, nonbait, eta lgartzazabaleko Bixentek, parrandazale eta adarjotzaile


ezagunak, hor eman dio bat Pazkoakoa ez bete-tzeagatik pekatuan egon ez dadin. Urtehartako 'kontrolean' zezenetarako txartel bat agertu omen zen; baina ez korrida ikustera joatekoa, behia zezenarengana noiz eraman zutenekoa alegia. Ez dakigu hor "goitik" Ixidrori Pazkoakoa betetzat eman zioten, eta Bixentek zenbat 'indulgentzia' behar izan zituen ere ez.

Ordulari eroa?

Bittor Olano, mediku usurbildarra, Arrasateko Santa Ageda psikiatrikoko zuzendaria izan zen urte askoan. Halako batean, ospitaleko pasilloetan doala, bertako gaixo batek gelditu du eta eskuarekin paretean zegoen ordularia erakutsiz horrela dio: -Erloju hori ondo al dago? -Bittorrek, eskumuturrean daramanari begi-

ratu ondoren: Bai, ondo dago. -Gaixoak, berriro: Seguru al zaude? -Bittorrek: Bai, bai, seguru. - Gaixoak: Orduan, zer arraia egiten du hemen?

EUSKAL
HERRIA
2027





Usurbil 1936 elkarteak landutako oroimenaren ibilbidea osa daiteke noiznahi edo bisita gidatuen bidez.

"Oroimenaren soka eten ez dadin"

Duela 90 urte Usurbilen jazotakoa oroituko du Usurbil 1936 elkarteak larunbat honetan, irailaren 19an Artzabalen antolaturiko ekitaldiarekin. Transmisioan eragin nahi dute, orduan jazotakoa ahanzturan geratu eta berriro errepika ez dadin.

ARITZ LASARTE

Bederatzi hamarkada igaro dira, errepublikaren aurka matxinatutako kolpistek Usurbil hartu zutenetik. 1936ko irailaren 18an izan zen. 90. urtemugaren harira, ekitaldi berezia antolatu du herri honen memoria plazaratzen diharduen Usurbil 1936 elkarteak; "Oroimenaren soka eten ez dadin" izeneko hitzordua hain zuzen. Larunbaterako, irailaren 19rako antolatu dute, arratsaldeko 20:00etan Artzabalgo parkean. Euria balitz, Sutegin egingo da. Antolatzaileek aurreratu dutenez, "elkar-teak ekitaldi berezia pres-tatu du. Garai hartan, herrian gertatutako hainbat pasadizo gogora ekarriko dira". Antzezturiko hitzordua izango da; "hari antzeztu bat egongo da, ez dugu gehiago esango". Hari

horren bidez, "garai hartako pasarteak, bai herrian gertatutakoak edo herritarrekin zerikusia dutenak gogora ekarri nahi ditugu, jendea eza-gutaraztea", Usurbil 1936 el-kartetik hedabide honi adie-razi diotenez. Xehetasun gisa, aurreratu dutenaren arabera, "nahiko bisuala izango da ekitaldia". Ardatz argi eta na-gusi bat izango du; transmi-sioarena. Izan ere, herri ho-netan jazotakoa, ezkutuan

"GARAI HARTAN, HERRIAN GERTATUTAKO HAINBAT PASADIZO GOGORA EKARRIKO DIRA"

izandakoa "uste dugu egungo belaunaldiak eta baita dato-zenek ere, ezagutu behar du-tela. Guztion esku dago trans-misio lan hori".

Transmisioa, gertatutakoa-ren ezagutza ez galtzea, berriz errepika ez dadin, ezinbeste-koa da. Hortik dator, Usurbil 1936 elkarteak larunbateko ekitaldirako hautaturiko izen-burua. "Izan ere, faxismoaren gorakada nabarmena da egun. Begi-bistakoa da zer gertatzen

"JABETU BEHAR DUGU ZER ARRISKU DAUDEN, DUELA 90 URTEKOA ERREPIKATU EZ DADIN"

ari den munduan, baita gure gizartean ere. Jabetu behar dugu zer arrisku dauden, due-la 90 urte gertatutakoa erre-pikatu ez dadin". Bestela esanda, "ahantzuraren kontra ere guri dagokigu transmisio hori egitea". Horrek are na-barmenago egiten du, hilaren 19ko hitzorduaren garrantzia. "Deialdia egin denoi etortze-ko, uste dugulako merezi due-la 90. urteurren hau gogora-raztea; zer gertatu zen eta nabarmen-tzea zer izan zen hura", Usurbilgo memoria lantzen eta plazaratzen dihar-duen bilgunetik azpimarratu dutenez.

Ekitaldira joan asmo dutenek, 1936ko gerra garaian Usurbi-len bizitakoaz sakon informa-daitezke alde z aurretik, aipa-tu elkarteak duen atarian, bilgunearen usurbil1936.eus webgunean hain zuzen. Ur-teetako lan mardula osatua du aipatu herri eragileak; "in-formazio askoko txostena, gaiarekin zerikusia izandako usurbildarren edo Usurbili lotutako informazioa, hoguei bat lekukotza ditugu herrita-rrekin bilduak, egin ditugun ekimenen argazki eta bideoak... Lan osatua da".

Azaroan hurrengo hitzorduak

Larunbateko ekitaldiaren os-tean, beste bi hitzordu iraga-riak ditu Usurbil 1936 elkar-teak azarorako. Batetik, hila-bete hasieran bezalaxe tarte-ka egin ohi duten moduan, 650 Usurbil Bizi herri egitas-moaren eskutik, Gerraren Memoria ibilbidea osatzeko aukera izango da bisita gida-tu bidez, azaroaren 7an. Noiz-nahi egin daiteke herrian diren totemei segita. Foru Aldundiak antolaturiko Ondarearen Eu-ro-pako Jardunaldiaren baitan eskainiko da. Hilabete berean, Usurbil 1936 elkartearekin lankidetzan jardundako Aitzol Arroyo historialariak eta Aitor Azurki kazetariak nazioarteko brigadek Euskal Herrian izan-dako rolari buruz idatzitako liburua aurkeztuko dute.



Irailaren 26ko ospakizuna berezia izango da. Idoia Torregarai gidatuko duen ikuskizuneko ardatza umorea izango da.

NOAUA! Kultur Elkarteak bidelagunekin batera ospatuko ditu 30 urteak

NOAUA! Kultur Elkarteak 30 urte bete ditu. Uztailean Dema plazan antolaturiko "Ikimilikiliklik Vol.2" ikuskizunaren ondotik, bidelagunekin ospatu nahi du hiru hamarkada hauetako ibilbidea. Irailaren 26an izango da, bilgune honentzako plaza sinbolikoenean, Potxoenea ondoko Olanoenean.

ARITZ LASARTE

Dakizuenez, 30 urte bete ditu NOAUA! Kultur Elkarteak. Uztailean 18an Dema plazan 650 Usurbil Bizi herri egitasmoarekin lankidetzan eskainitako "Ikimilikiliklik Vol.2" ikuskizunarekin ospatu zuen bilgune honek aipatu urteurren hori. Duela 50 urte Artze anaiek, Jose Luis Zumetak edota Mikel Laboak ondutako ikuskizun haren 50. urtemugaren harira, beste sortzaile talde batek emanaldi berriua plazaratu

zuen, irudi, hitz eta askotarikoinuen bidez.

Ez da, ordea, kultur elkar-tearen 30. urtemugaren harira antolaturiko ekintza bakarra izango. Izan ere, irailaren 26rako iragarri du urteurren honi lotutako hurrengo hitzordua. "Lau Haizeetara" aldarriean, Potxoenea ondoko Olanoenea plazan egingo da ospakizuna, arratsaldeko 19:00etan. Euria balitz, Askatasuna plazan egingo da ospakizuna.

"Ekitaldian ez da umorerik faltako, hasierako pasadizoak, 30 urteetako ibilbidea, elkar-teak herriari egindako ekarpena eta batez ere, etorkizuneko erronkak eta aurrera begirako urratsak" izango ditugu hizpide. Saioa umoregile eta kazetari Idoia Torregarai Martija herrikideak gidatuko du eta, nola ez, umorea izango du ardatz nagusia.

Torregarai NOAUA! K.E.-ren lehendakaria izana da hamarkada batez. Horrez gain, so-

rrera urteetan ere gogotik aritu zen lanean herri egitasmo honetan. "Ospakizun berezia izango da: xumea, gertukoa eta goxoa, urte hauetan guztietan eraiki dugun guztia elkarrekin ospatzeko. Eta amaieran, nola ez, topa egingo dugu! Edalontziak eta sagardoa gure kontu!"

Hitzordura joatera gonbidatuak zaudete, "urte hauetan guztietan, NOAUA!ren bidelagun izan zareten bazkide, irakurle, eragile eta lagun guztiak". Olanoenea plaza hautatu du kultur elkar-te honek bere 30 urteak ospatzeko, nahita. Izan ere, lehen urteetan gune horixe baliatzen zuen NOAUA! -k Sagardo Egunez, bazkideen talde argazkia ateratzeko.

Bazkidetza

NOAUA! K.E.-ren bazkide izateak hainbat onura ditu; horien artean, elkar-tearen erabakietan eskuhartzeko eskubidea izango duzue, beharpenak elkar-te honen ekitaldietan, hobaria errenta aitortenean eta garrantzitsuena, egitasmo hau babes-tu eta bultzada emango diozue. Bazkidetza Bordaberri 3ko egoitzan bideratu dezakezue edota noaua.eus/bazkidetza/ helbidean.

**"IRAILAREN 26AN,
NOAUA!KIDE
GUZTIEN
ELKARGUNEA
IZANGO DA
OLANOENEA PLAZA.
19:00ETAN HASIKO
DA IKUSKIZUNA"**

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

www.noaua.eus

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Belaunaldi-erreleboa sustatzeko dirulaguntza deialdi berria

"Usurbilgo tokiko zerbitzu txikien belaunaldi-erreleboa sustatzeko dirulaguntza oinarriak" kaleratu zituen Udalak irailaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

ARITZ LASARTE

"Oinarri hauen xedea da Usurbilgo Udalak tokiko ohiko zerbitzuen ondorengoetartzea eta belaunaldi-erreleboa sustatzeko emango dituen 2026ko dirulaguntzak arautzea, lehiarik gabeko norgehiagoka-erregimenean, lehendik dauden jardueren jarraipena bermatzen duten titular berriei laguntzeko. Dirulaguntza hauen bidez, lehendik Usurbilen ezarriak dauden eta bideragarriak diren tokiko merkataritza, ostalaritza eta bestelako ohiko zerbitzuen itxiera saihestu nahi da, herriarrentzat oinarritzakoak diren zerbitzu horien jarraipena bermatzeko", dio Udalak GAO-n argitaraturiko iragarkian. Helburua, "negozioen titulartasuna hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoei laguntzea da, bideragarritasun ekonomikoko eta egonkortasuneko baldintzetan jarraituko dutela bermatuz". Alegia, "tokiko zerbitzu txikien iraunkortasuna" sustatu nahi du Udalak diru-

laguntza lerro berri honen bidez, "jarduera ekonomiko finkatuen transmisio ordenatuko prozesuak erraztuz". Horregatik, "bereziki, dauden negozioen jarraikortasuna bermatu nahi da, transmisioaren ondorengo hasierako fasean egonkortzen lagundu, eta jarduerari atxikitako enpresa-ezagutza behar bezala transferitzen lagundu".

Kopurua

35.800 euro bideratuko ditu Udalak dirulaguntza deialdi horretara. Hiru lerroetan banatuko dute laguntza hori. "11.000 euro eskualdakotari lotutako gastuei aurre egiteko eta beste 16.800 euro bi urtetako lokalaren alokairu edo erosketa gastuak diruz laguntzeko lerroak. Azken lerro honetarako gehienez ere 9.600 euro erabiliko dira lehen urtean eta 7.200 euro bigarren urtean. Gainera, beste 8.000 euro ezarri dira ezagutza edo know-how-aren transmisiorako".

Zenbaki gehiago. Negozioa eskualdatzeari lotutako diru-



35.800 euro bideratuko ditu Udalak dirulaguntza deialdi honetara.

laguntza, gehienez, 5.500 eurokoa izango da; eskualdatutako lokalaren alokairu edo erosketa gastuei aurre egiteko laguntza, gehienez, 400 eurokoa hileroko lehen urtean eta 300 eurokoa hileroko bigarren urtean; azkenik, ezagutza transmititzea ahalbidetzeko, gehienez ere 4.000 euroko laguntza jaso ahal da. "Enpresa bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere lehendabiziko urtean 14.300 euro (5.500 euro + 4.800 euro + 4.000 euro) izango dira eta bigarren urtean 3.600 euro. Enpresa bakoitzak bi urtetan gehienez jasoko duen diru-laguntza 17.900 euro izango dira".

Eskabideak 2027ko urriaren 31ra arte eskatu ahal da

presentzialki udal erregistroan edota telematikoki usurbil.eus atarian.

Udalak jasotako "eskabideen kopuruak eta zenbatekoak ezarritako baliabide ekonomikoak gaindituko balitu, Usurbilgo Udalak zenbateko hori handitu ahal izango du, bere finantza-aukeren arabera".

NEGOZIOEN TITULARTASUNA HARTZEN DUTEN PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOEI LAGUNTZEA DA HELBURUA

Heriotza eta literatura hizpide Sutegi udal liburutegian

Udaberrian Udalak eragile gehiagorekin lankidetzan abiarazitako "Komunitatetik, heriotzaz" zikloaren baitako hurrengo saioa ate joka dugu. Irailaren 22an izango da, arratsaldeko 18:30ean Sutegi udal liburutegian. "Heriotza eta literatura" izango du aztergai

saio horretan, Ainhua Aldazabal literaturan adituak eta Skolastikako kideak. "Literaturak bizi esperientziak jasotzen dituen moduan jasotzen ditu heriotza esperientziak. Heriotzak, hileta errituak, do luak... literaturan nola jasotzen diren ikusiko dugu elkarrekin".

'Aitatxo' dokumentalaren proiektzia

Ziklo horren baitan, beste bi saio antolatuak daude; bat urriaren 18rako. "Aitatxo. Isiltasunezko ahotsak" izeneko dokumentala proiektatuko dute. Seme-alabaren bat galdu duten lau aitaren testigantzak jaso dituzte lan honetan.

Azkenik, azaroaren 5ean, "heriotza eta kulturartekotasuna" hizpide izango dute.

Haraneko lokalak

Herriko musika taldeek entsegu saioetarako guneok erabiltzeko izena emateko epealdia zabalik izango dute irailaren 30era arte. Horretarako usurbil.eus/eu/eskaera-orriak web orrialdeko eskaera orria bete beharko da. Udalak, urtero 16 talderi emango die lokalok erabiltzeko aukera, onartua duen araudiaren baitan.

Greba deialdi ugari iragarri dira udazken parterako

Protesten udazkena datorkigu. Hainbat lan sektoreetan greba egunak deitu dituzte. Udal langileek batetik, erraustegiko langileek bestetik, eta Osakidetza sindikatuak, azkenik.


Udal langileak

"Udalhitzeko mahaian eta udalako negoziazioetan aurrera-pausorik ez dagoenez", urteko lehen sei hilekoan hasitako greba dinamikari segida ematea erabaki dute LAB eta ELA sindikatuak. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udal langileak grebara deitu dituzte berriz, urriaren 8an; baita beraz, Usurbilgoak ere. Uztailaren 6an egin zuten negoziatioetarako azken saioa. Ordutik, "ez dugu edukietan konponbiderako inolako proposamen berririk jaso". Sindikatuok adierazi moduan, "Udalhitzeko negoziatioak bi urte beteko dituenen, garrantzizkoak diren eduki batzuetan nabarmen sakontzea falta da, besteak beste, erosahalmena berreskuratzeko neurri zehatzetan, euskaraz lan egin eta bizitzeko neurrietan, publikazioetan azpikontrataturiko langileen subrogazio eskubidean, lanaldia gehiago murriztean eta errelebo kontratuan eta gazteberritze planetan". EUDEL osatzen duten EAJ, EH

BILDU, PSE-EE eta Alderdi Independenteei "negoziatorako borondatea erakusteko eta udal langileen lan-baldintzak haien politiken erdigunean jartzeko" galdegin diete.

Osakidetza

SATSE, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak bost greba egun deitu dituzte Osakidetzan, "behingoz kolektibo guztien lan-baldintzak hobetzeko" eta "negoziatioa defendatu orain! Lan-baldintzen hobekuntza = osasungintza publiko hobea" aldarripean: urriaren 30ean eta abenduaren 14an Osakidetza hiruherraldeetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan osoan; abenduaren 9an Araban, 10ean Bizkaian eta 11n Gipuzkoan. "Osakidetza eskatzen diogu negoziatio-prozesu bat ireki dezala, langile guztientzako konponbide errealak lortzeko eta herritarren osasun-arreta hobetzeko". Langileak, erabiltzaileak eta eragile sozialak deituko dituzten mobilizazioetara batzera gon-



EAEko udal langileak grebara deitu dituzte urriaren 8an.

bidatu dituzte sindikatuok. Hainbat aldarrikapen adostu dituzte. Horien artean dira, besteak beste: hitzarmena berehalan negoziatzea, kolektibo guztien ordainsariak eguneratzea, lanaldi arrunta murriztea, profesionalen arteko desberdintasunak ezabatzea, sindikatuarekin Lehen Arreta eredu berriari ekitea, euskalduntze-plana...

"OSAKIDETZARI ESKATZEN DIOGU NEGOTIAZIO PROZESU BAT IREKI DEZALA"

SATSE, ELA, LAB, CCOO, UGT

Medikuek ere greba mugagabea hasiko dute urriaren 28an.

Erraustegiko langileak

Lan hitzarmen duinaren aldeko borrokan dihardute Zubietako erraustegiko langileak. Hainbat lanuzte egin dituzte, haien osasuna eta segurtasuna bermatuko duten lan-baldintzak exijitzeko. Abuztuaren 19an beste sute bat izan zen erraustegian. Bederatzi lankide artatu behar izan zituzten, sutea itzaltzeko ahalegintzen aritu behar izan zutelako. Gertaera salatzeak elkarretaratzea egin zuten abuztuan. Hurrengo greba eguna, irailaren 23rako dute deitua.

Langabetu kopuruak gora egin zuen abuztuan

Estatuko Enplegu Zerbitzuak ekaineko langabetu kopuru bera zenbatu zuen uztailean; 212 guztira eta hamaika gehiago abuztuan, 223. Iazko joera bera errepikatu da aurten goan ere. 223 langabetutik 123 emakumezkoak ziren eta 100 gizonezkoak. 45 urtetik

gorakoen artean zegoen iragan hilabeteen langabetu gehien, 223tik 129. Bestalde, 195 kontratu erregistratu ziren Usurbilen abuztuan. Ohi bezala, gehienak (141) zerbitzuetan eta 135, aldi baterako hitzartu ziren. Gizonezkoak baino emakumezko

langabetu gehiago izan arren, abuztuan ere emakumezkoenak baino (74) gizonezko gehiagoren kontratuak erregistratu ziren (121).

Usurbilen bezala, Beterri Buruntzan (115 langabetu gehiago) eta Gipuzkoan ere (371 langabetu gehiago) gehitu egin zen lanik gabekoen kopurua abuztuan, Estatuko Enplegu Zerbitzuak kalera-turiko azken datuen arabera.

Yoga Aginagan

Juanjo Lertxundik yoga ikastaroa eskainiko du urriaren 7tik aurrera Aginagan. Astean saio bat izango da, 90 minutukoa. Asteazkenetan hain zuzen, 16:30etik 18:00etara.

- Hasiera: urriak 7.
- Prezioa: Kuota orokorra, 50 euro hilean. Jubilatua, 40 euro hilean. Plaza mugatuak.
- Harremanetarako: 637413691.



LH5eko lagun taldea, Iñurri Eguneko denda solidarioan.



"Amona Isaren omenez", 3. Iñurri Egunean jarritako postua.

Sormena, elkartasun iturri Iñurrirentzat

3. Iñurri Eguna, bizitza ospatu eta elkargune solidario handia izan zen. Irailaren 5eko jaialdian auzolanean jardundakoen artean izan zen, lerrootako LH5. mailako gazte taldea. Iñurri elkartearentzako laguntza biltzen aritu ziren.

ARITZ LASARTE

Bizitzari gorazarre egin zion gogotik, irailaren 5eko Usurbilgo 3. Iñurri Egunak. Askotariko ekintzen eta ekimenen bidez girotu zuen herri erdigunea, izen bereko eta egoitza Askatasuna plaza ondoan kokaturiko elkarteak. Auzolanarekin batera, elkartasun giroa nagusitu zen. Iñurriren eskutik jasotakoa bueltan, elkarte horri eman eta eskertzeko aukera izan zen beste behin, besteak beste, Sutegi ondoan jarritako denda solidario arrakastatsuekin. Iñurri elkarteak ezagun eginiko aldarrien isla diren arropa eta osagarri hainbat salgai jarri zituzten. Egunean zehar, hainbat lagun hurbildu zen postura erosketak egin eta, hala, Iñurri elkarte laguntzera.

"Amona Isaren omenez"

Aurtengoan, gainera, elkartasun postu bikoitza izan du 3. Iñurri Festak. Izan ere, bilgunekoen ondoan, herriko gazte talde batek ere askotariko eskulan eta objektuez horni-

turikoa egokitu zuen. Udarregi ikastolako LH5. maila abiatu berri duen irudiko taldeak haien kabuz, eskuz sortzen joandako lanak salgai jarri zituen. Horrekin batera, taldeko lagun bati urte hasieran minbiziak jota zendutako "amona Isaren omenez" elkartasun postua ere jarri zuten. Zendutako emakumeak argi zuen, bere etxeko hainbat objektu salgai jarri eta horren truke bildutako laguntza Iñurri elkartearentzat izatea nahi zuela. Bere borondatea beteaz zuten irudiko gazte taldeak hilabete hasierako Iñurri Egunean.

Postua iragartzeko aukera izan zuten, gainera, bertso musikatuen saioaren hasieran,

"AMONA ISAREN BORONDATEA BETEARAZI ZUEN IRUDIKO GAZTE TALDEAK"

ekitaldiko ohol-tza gainetik bertatik. "Elkartasun denda bat jarri dugu", jakinarazi zieten frontoian bildutakoei. Hortik jasotako laguntza Iñurri elkartearentzat izango zela iragarri zuten. Horretarako, "guk egin ditugu eskumuturrekoak, lepokoak, belarrirakoak eta abar", azaldu zuten. Bide batez, aipatu moduan, amona Isaren borondatea beterazi zuten, "gure lagun baten amona minbiziarekin hil delako. Hil aurretik esan zuen, bere etxeko gauzak dendan jartzeko". Horregatik, adierazi zuten festan elkartutakoei, "eskertuko genizueke gure dendara gerturatzea". Frontoian zirenen merezitako txalo zaparrada jaso zuten.

"LAGUN BATEN ETXEAN ELKARTZEN GARA, PREZIOAK ADOSTEN DITUGU"

Elkartasunari segida

Frontoiko ohol-tzara igotzeko eginiko ahaleginak merezitako erantzuna izan zuen segidan. Arratsalde partean, mugimendua izan zuten Aitzaga ondoan jarritako postuan. "Behin hasi ginen denda jartzen eta geroz eta gauza gehiago" dituztela eman ziguten aditzera. Duela hiru urte hasi ziren zereginotan. Zehaztu zigutenez, taldean bakoitzak bere sorkuntza lanak bideratzen ditu.

Gero, egindakoa batu eta salmenta prezioak adosten dituzte. Hilabete hasierako jaialdira begira ere halaxe egin zuten. "Lagun baten etxean elkartzen gara, prezioak adosten ditugu". Prestaketa lanak bideratuta plazaratu dira oraingoan ere. Esan zigutenez, "jendea badabil, baina iaz arrakasta handiagoa izan zuen". Halere, frontoiko ohol-tzara igo izana nabarmendu zutela adierazi ziguten.

Bildutakoa, aurrekoetan bezalaxe, minbiziaren akonpainamenduan eta dibulgazioan ikuspegi feminista batetiketa kolektiboki diharduen Iñurri elkarteari helaraziko diote. Halere, haien elkartasun gogoa ez da amaituko aurtengo Iñurri Egunarekin batera. Izan ere, sortzen, sortutakoa besteen eskuragarri jarri eta elkartasuna biltzen segitzeko asmotan diren galdetuta, erantzun kolektibo, argi eta ozena eman ziguten; baiezkoa, noski.

Erraustegia gelditzeko giza katera batu ziren

Errausketaren Aurkako Mugimenduak deitu zuen mobilizazioa irailaren 14an Donostian, eragile gehiagoren babesarekin.

Festak eta aldarrikapenak bat egin dute beste behin, aurtengo Donostiako estropaden bigarren eta azken jardunaldi egunean. "Ez erre etorkizuna. Erraustegia gelditu!" aldarripean, Errausketaren Aurkako Mugimenduak eragile gehiagorekin (LAB, ELA, CCOO, ESK, EH Bildu, Elkarrekin, Berdeak Equo, Eguzki, Ekologistak Martxan, Donostia Bizirik) deitutako giza katea egin zuten. Estropaden jokalekura begira zirenek, aurrez aurre izan zuten beste behin, errausketaren aurkako

aldarria. "Erraustegi toxiko, garesti eta alferrikako hori gelditzea" galdegina zuten. Mobilizazioaren bezperatan gogora ekarri zuten moduan, "Zubietako erraustegia da Gipuzkoan negutegi eragina daukaten gas gehien isurtzen duen instalazioetako bat".

Jakinmina

Estreinakoz, Ertzaintza bertaratu zen mobilizazio gunera, antolatzaileek ekimena egiteko eskatutako baimena egiaztatzerako. Bestalde, bidean, bereziki turista bat baino gehia-



Errausketaren aurkako aldarria Kontxa zeharkatzen.

go hurbildu zen mobilizazio-ko parte hartzaileengana, argibide eske, zer aldarrikatzen ari ziren jakin nahian.

Erraustegiko langileek haien osasuna eta segurtasuna bermatuko duen lan-hitzarmen duinaren alde urte hasieran abiatutako borroka ekarri dute gogora aurtengoan, giza katearen deitzaileek. Abuztuko azken sutean, "bertako langileek oinarritzko babesik gabe

beraien osasuna arriskuan jarriaz itzaltzen saiatu behar izan zuten".

"ERRAUSTEGI TOXIKO, GARESTI ETA ALFERRIKAKO HORI GELDITZEA" ESKATU ZUTEN



Giza kate luzea osatu zuten mobilizazioarekin bat egindakoek.



Erraustegia gelditzeko eskaera, oihal txuri handian.



Giza kate ibiltaria izan zen, Kontxako hondartzan egindakoa.



"Ez erre etorkizuna" aldarridun pankarta, giza katearen buru.



Ur puxiken gerrarako prestaketa lanetan topatu genituen jai batzordeko hiru kideak. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Globoen tradizioa beharrezkoa da"

Ostiralean emango diete hasiera Santueneko jaiak. Berrikuntza handirik ez dagoen arren, jai batzordeko kideek egitarau oparoa prestatu dute aurtengoan ere. Irudian ikus daitekeenez, ur puxiken gerrarako gogotsu daude hainbat eta hainbat auzokide.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

Iraila erdialdea da eta dagoeneko uda bukatzeaz dagoela nabaritzen da, baita herriz herri festarik festa ibiltzeko denboraldia ere. Udako festak bukatzen ari diren arren, Santuenean asteburu honean hasiko dira auzoko jaiak.

Urtero legez, irailaren erdialdean ospatuko dituzte auzoko festak Santuenean. Jai batzordeko kideak ordea, otsaila inguruan hasi ziren jaiak prestatzen: baimenak eskatzen, musika taldeak lotzen...

Orain, festetan murgiltzeko gogoz daude. Jai batzordea 20 bat lagunek osatzen dutela aitortu digute, eta adinari dagokionez, denetarik dagoela, helduak eta baita 26 urte azpikoak ere: "Gazteenak 17 urte ditu, eta zaha-

rrenak 57. Urte tarte horretakoak gara denak".

Haietako hirurekin elkartu gara jaien nondik norakoak zein diren jakiteko. Urtero moduan, txupinazioa ostiral arratsaldean egingo dute, eta ondoren, urrezko puxiken gerrarekin hasiko dituzte jaiak.

Jai batzordeko kideak aitortu dutenez, urteak daramatzate jaiak modu horretara hasten, eta honezkero tradizioa bilakatu dela onar-

tu dute: "Nik 29 urte daramatzat globoak puzten. Beste guztiak berdin dit, baina globoen tradizioa beharrezkoa da". Aspalditik antolatzen diren jaiak direla ere gehitu dute.

Hiruretako batek, aurretik aipatu duen gisan, 29 urte daramatza jaiak prestatzen eta beste biek nahiko berriak direla azaldu digute: "guk hiru urte daramatzagu jaiak antolatzen. Hasieran, ama gisa egiten genuen lan Umeen

Eguna antolatzen, baina gero, jai guztiak antolatzeko urratsa eman eta hemen jarraitzen dugu".

Egitarau oparoa prestatu dute denen artean: sardin-jana, mus txapelketa, kontzertuak, buruhandi eta erraldoiak, magia erakustaldiak... Esan digutenaren arabera, jaiak adin guztientzako antolatzen saiatzen dira, nahiz eta auzokide batzuei iruditu umeentzako gauzak egiten direla bakarrik. "Azken hiru urteotan, adin guztietarako ekintzak egiten saiatu gara. Lehen gazteak bakarrik zeuden antolakuntzan, eta gu etorri ginenetik, ekintzak parekatzea lortu dugu", aitortu du haietako batek.

Santueneko jaietan, adin tarte bakoitzerako egun bat antolatzen saiatzen dira, ume, gazte zein jubilatuentzako. "Lehenago gazteak bakarrik zeudenez, dena haietazko bideratuta zegoen eta beste sektoreentzako, umeentzako eta jubilatuentzako, gauza gutxi zeuden. Guk denak hartzen ditugu kontuan".

Jaiak irailaren erdian egiteak, eta daten aukeraketaren inguruan galdetuta, ez dute jakin esaten zergatik antolatzen dituzten irailean, ez baitaude inongo santuari lotuta Santueneako jaiak.

Ondo pasatzeko nahia

Santueneko auzokideek usurbildar orori dei egiten diote asteburuan zehar Santueneko jaietara gerturatzeko, beti ere ondo pasatzeko intenzioarekin.

Euririk ez egitea espero dute, haiek diotenez, urtero euria egiten baitu eta dena ondo ateratzea dute helburu. "Dena ondo ateratzea, jende asko etortzea eta giro ona egotea espero dugu".

Ezer txarrik ez gertatzea ere espero dute, baina okerrean jarrita ere, protokoloak prestatu dituztela azaldu dute: "Due-la urte batzuetatik hona protokoloa dugu".

"AZKEN URTEETAN, ADIN GUZTIETARAKO EKINTZAK EGITEN SAIATU GARA"

"EKITALDIK ONDO ATERATZEA, ETA GIRO ONA EGOTEA ESPERO DUGU"



laz, kolore festan bilakatu zuten Dj Gorka Mendiren emanaldia.

Ekitaldiz beteta dator asteburua Santuenean

Santueneko Jai Batzordeak denbora darama auzoko jaiak prestatzen. Ostiralean hasi eta igandera bitarte, ekitaldi ugari iragarri dituzte.

Irailak 18, ostirala

- 17:00 Txupinazoa. Ondoren, globo gerra.
- 18:30 Buruhandiak.
- 19:00 Gautxori Txaranga.
- 19:30 Sardin-jana.

- 21:00 Auzo Afaria. Antolatzaleek aditzera eman dutenez, "zure afaria ekarri. Sagardoa gure kontu".
- 23:00 Dj Gorka Mendi.
- Ondoren, DJ.

Irailak 19, larunbata

- 10:00 Puzgarriak.
- 12:30 Buruhandiak.
- 13:30 Haurren bazkaria (norberak ekarria, edaria eta postrea gure kontu).
- 15:30-16:00 Muserako izen-ematea.
- 16:00 Mus txapelketa.
- 17:30 Txokolatada.
- 18:00 Lauburu Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren kalejira.
- 19:30 Astiazaran eta Alabier trikitilariak.
- 23:30 Laket erromeria.
- 02:30 Dj Txolas; Dj Tuggo.

Irailak 20, igandea

- 09:00 Esnadeia: Jon&Jonekin.
- 11:00 Umeentzako tailerrak.
- 11:00 Toka txapelketa.
- 12:00 Hamaiketakoa txosnan.
- 12:00 Zantantzarrak.
- 12:30 Lekim magoa.
- 14:00 Auzo bazkaria.
- Ondoren, bingoa.
- 17:30 Buruhandiak.
- 18:00 Xaibor.
- 19:00 Piper dastaketa.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Antolatzalea: Santueneako Jai Batzordea.

Ikastaro eskaintza zabala, Santuenea Kultur Elkartearen eskutik

Santuenea Kultur Elkartek ikastaro sorta iragarri du ikasurte berrirako:

- Jubilatuentzat: memoria (astelehenak, 18:00-19:30), taichi (urriaren 5etik aurrera astelehenak 17:00-18:00), bingoa (ostiralak, 17:00-19:00).
- Gainerako ikastaroak: aeroyoga (astelehenak 18:30-20:30, asteazkenak 9:15-11:45 edo 17:30-20:45, ostegunak 17:15-20:30), chikung (asteartekak 17:45-20:45).



Aeroyoga izango da ikastaroetako bat.

- Izen-ematea: aeroyoga (615 715 991, Leire), chikung (686 957 027, Alex), taichi (675 006 445, Maribi).

Urrian, bertso-afaria Maialen Lujanbio, Ane Labaka eta Miren Artetxerekin

Urriaren 16an bertso-afari bat egingo dute Santueneko Ibai-Ondo elkartean.

- 20:30 Bertso-afaria Santueneko Ibai-Ondo elkartean.
- Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Ane Labaka, Miren Artetxe.
- Gai-jartzailea: Onintza Garzia.
- Menua: txistorra, bakailaoa saltsan, saiheskia, gazta, irasagarra eta intxaurrak, kafea, kopa.



Urriaren 16an, Ibai-Ondo elkartean.

- Txartela: 40 euro, Esnaola janaridendan salgai.
- Antolatzalea: Santuenea Kultur Elkartea.



Orban taldekoak zuzenean arituko dira irailaren 25ean ostirala, 19:00etatik aurrera Sutegiko plazatxoan. EKHI MANTEROLA

"Diskoa entzun dutenek iritzi positiboak helarazi dizkigute"

ORBAN MUSIKA TALDEA

Txiskeroak izenarekin egin ziren ezagunak, eta orain, izen "serioago bat" jarri nahi izan diote taldeari lehen diskoa grabatu berritan. Irailaren 25ean diskoaren aurkezpena egingo dute.

Lehen Txiskeroak, orain Orban. Zergatik aldatu duzue izena?

Alain Harreguy (A.H.): Etapa berri bat hasi dugula iruditzen zaigu. Txiskeroak iruditzen zitzaigun 14-15 urtekin sortu genuen talde horrentzako zela, eta jada ume ikusten genuen izen hori. Horregatik, izen serioago bat jartzea erabaki genuen.

Eta nondik dator izena?

Axel Flores (A.F.): Nik uste sinpleena egin genuela. Alai-nek diskoaren azala egin zuen, eta orban moduko bat da azala. Hortik datorrela uste dut.

Lehenengo diskoa grabatu duzue. Noiz izango da aurkezpena?

A.F.: Diskoaren aurkezpena irailaren 25ean egingo dugu Sutegi eta Aitzaga tarteko plaza horretan.

Enaitz Manterola (E.M.): Iluntze aldera egingo dugu, 19:00etatik 20:00etarako tarte horretan, Iluntzearekin batera aurkezpena egitea polita iruditzen zaigu.

ORBAN TALDEAREN LEHEN DISKOAK 'AMA' DU IZENA ETA SEI ABESTIZ OSATUTA DAGO

Zenbat kantek osatzen dute disko berria?

E.M.: Ama izena du diskoak edo maketak, eta sei abestiz osatuta dago. Bat ezaguna da dagoeneko, *Kale Ilunak*, eta aspalditik jotzen dugu, eta gainerakoak berriagoak dira.

Zein musika estilokoa da diskoa?

"DISKOAK PLATAFORMETAN ENTZUTEKO JOERA NAGUSITU DA"

E.M.: Rock-pop estiloa dela esango nuke.

A.H.: Nik gehiago rock klasikoa dela esango nuke.

Zer espero duzue lehenengo kontzertu horretaz?

E.M.: Espero baino nahi duguna da dena ondo ateratzea. Egia esan, diskoa honezkero argitaratuta dago plataformetan, eta jendeak iritzi nahiko positiboak helarazi dizkigu guri. Beraz, gu ere gustura gaude, eta aurkezpenean jende pixka bat biltzea espero dugu.

A.F.: Nik uste jendea azalduko dela kontzertua ikustera.

Zergatik elkartu zineten lehen aldiz Txiskeroak osatzeko?

E.M.: Eskolatik etorri zen dena. Eskolan azken eguneko kontzertu, ekitaldi edo antzeko zerbait egon zen, eta elkarren artean ezagutzen ginen. Bagenekien instrumentuak jotzen genituela. Hasieran garaje batean hasi ginen, eta ikusi genuenean gauza serioago bat izateko aukera zeukala, udalari eskaera egin genion lokaletarako.

Nola abiatu zen taldea?

A.F.: Denak hasten diren gisa, ez? Bertsioak jotzen hasi ginen.

Abestiek egile bakarra dute ala denen artean egiten dituzue?

A.F.: Askotan etxean egindako zerbaitekin etortzen gara lokalera, eta denon artean forma ematen diogu, eta orduan, sortzen da kantua.

'Ama' zein euskarritan aterako duzue?

E.M.: CDan aterako dugu, baten batek beste modu batera eskatuz gero, agian pentsatuko genuke.

Iruditzen zaigu gaur egun diskoa bera ere gutxi erosten dutela. Plataformak egonda eta dagoen eskaintzarekin, jendeak joera dauka plataformetan entzuteko, fisikoan baino. Gure planteamendua ez da binilo eta kasete aldetik joatea.



Asteburu honetan hasiko da denboraldia ofizialki Usurbil KEko taldeentzat.

Eskubaloia elkarteak, denboraldi betean

Abiatu da 2026-27 denboraldia herriko kirol taldeentzat ere; tartean, Usurbil K.E.-koentzat.

ARITZ LASARTE

"Liga ofizialen hasiera iritsi da", aipatu bilgunetik ohar bidez gogorazi dutenez. Horren erakusle, asteburuan Oiar-do kiroldegirako iragarritako partida kopurua; sei guztira. Tartean, "kadete, jubenil eta senior mailako taldeek denboraldiko lehen neurketak izango dituzte", jakinarazi dute Usurbil K.E.-tik. Infantilen kasuan, "prestaketa-lanekin jarraituko dute datozen asteetan, euren liga txapelketak hasi aurretik".

Jubenil eta kadete mutilen bi taldeek Zumaian jokatu dute asteburuan. "Bi taldeentzat erronka garrantzitsua izango da Euskal Ligako denboraldiari ekitea. Izan ere, aurreko denboraldian egindako lanaren ondoren, Usurbil KEk kadete zein jubenil mutilen taldeak Euskal Ligara eramatea lortu du. Orain, maila horretan lehiatzeko unea iritsi da".

Lana kantxaratzeko ordua

Usurbil KEko kirol arduradun Julen Nazabalek adierazita-koaren arabera, "asteburu honek «ilusio berezia» du klubarentzat, talde askorentzat benetako lehiaketaren hasiera

izango baita. "Kadete, jubenil eta senior mailako taldeentzat lehen partida ofizialak izango dira, eta hori beti da berezia. Taldeek orain arte egindako lana kantxan erakusteko eta lehiaketaren erritmoa hartzen hasteko aukera izango dute".

Bereziki azpimarratu nahi izan du Nazabalek Euskal Ligako bi taldeek duten erronka: "Kadete eta jubenil mutilek maila berri honetan lehiatuko dira, eta Zumaia lehen jardunaldia Pulporen aurka izango da. Esperientzia berria izango da taldeentzat, baina ilusioz eta lanerako gogoz helduko diogu".

Bestalde, infantil mailako taldeei dagokienez, kirol arduradunak lasaitasuna eskatu du: "Infantilek oraindik ez dute liga hasiko, eta lagunartekoek aukera emango digute taldeak prestatzen, jokalaria garatzen eta denboraldiari ahalik eta ondoen heltzen jarraitzeko".

Azkenik, Nazabalek zaleei dei egin die taldeak babestera: "Larunbatean Oiardon partida asko izango ditugu, goizetik arratsaldera arte. Talde guztiek behar dute harmailetak babesa, eta aukera polita izango da denboraldiari hasiera emateko gure etxean".

Iñaki Errasti Uberak Ondarroako entrenatzaile izateari utziko dio

ARITZ LASARTE

Donostiako estropaden bihar-munean Ondarroa Arraun Elkartek jakinarazi zuenez, Iñaki Errasti Ubera aginagarra ez da izango bertako gizonezko nagusien taldeko entrenatzailea hurrengo denboraldian.

Ia hamarkada oso bateko ibilbidea jorratu du aginagarrak talde horretan. "Iñakik 9 urte hauetan arraunlari eta entrenatzaile lanak uztartu ditu eta emaitza bikainak lortu ditu", nabarmendu dute aipatu kirol elkartetik.

Aipagarrien artean dira, "bederatzi urte hauetan Eusko Label Ligan mantentzea lortzea, Kontxako sailkapen hunkigarriak, Zierbenan lortutako gorengo mailako aurreneko bandera eta nola ez, Ondarroan 2022an lortutako etxeko bandera".



9 urte egin ditu Ondarroa zuzentzen.

Halere, Ondarroa Arraun Elkartek emaitzetatik haragotako balantzea egin nahi izan du aginagarraz. "Iñakik lan bikaina egin du harrobiko mutilen kirol bilakaeran". Ondorioz, eskertza helarazi nahi izan diote aipatu bilgunetik. "Esker oneko hitzak besterik ez ditugu eta etapa berrian zuri eta zure ingurukoei zor-terik onena opa dizuegu. Beti izango zara Ondarroaren parte. Eskerrik asko Iñaki!!".

Irati Larrañaga hirugarren, Axari Trail-en

Irati Larrañaga hirugarren gelditu zen atzo lehiatu zen Axari Trail lasterketan. 2 ordu eta 41 minututan osatu zuen 25 kilometroko ibilbidea Larrañagak.

Onditx Iturbe izan zen garaile, eta Larrañagak Iturbek baino 7 minutu gehiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

Judoan izena emateko garaia

Judo egiteko nahia edo interesa duenak irailean zehar, astelehen eta asteazkenetan, "17:00-20:30 artean, kiroldegiko tatamitik pasa eta bertan informazio guztia eta inskripzio orriak emango zaizkizue. Eskerrik asko".

Nahia Zudaire sei dominarekin etxeratu da

Kocaeliko (Turkia) Igeriketa Paralinpikoko Europako Txapelketan hartu du parte zubietarrak. Erreleboka bi domina eskuratu ditu, eta bakarka hiru zilar eta brontze bat lortu ditu. Zilarrak tximeleta erako 100 metroko proban, era askeko 100 eta 400 S8 metrokoetan; brontzea, aldiz, bular estiloko 100 metroko proban.

63. Enrike Abril errebote txapelketa

Irailak 20, igandea

- 09:00 Zubietako plazan: Zubieta 2-Luzean
- 10:30 Oiarzungo plazan: Txost-Goizeko Izarra
- 11:00 Zubietako plazan: -Zubieta 1 -SPUC



'Egia Kermanentzat' bilguneokoe hitzaldia eskainiko dute irailaren 22an.

'Egia Kermanentzat' bilguneokoein solasaldia

2025eko otsailean, Gasteizko diskoteka bateko atezainak Kerman Villate Beitia kolpatu eta bertan hil zuen. 'Egia Kermanentzat' bilguneak egia, justizia eta erreparazioa eskatzen du.

ARITZ LASARTE

Lasarte-Oriatik heldu zaigu lerrootako deialdi hau. Bertan, 2023an herritar talde batek osaturiko Borobileen Elkartek iragarritakoa da. Gai garrantzitsuei buruzko hausnarketa, elkarrizketa eta eztabaida sustatzeko solasaldi irekiak antolatu ohi dituzte. Hurrengo saioa, ikasturte berriko lehenengoa, irailaren 22an egingo dute, arratsaldeko 19:00etan Oriarte BHI eraikinean, EuskoTrenak Lasarte-Orian duen geltokiaren azpialdean.

Egia, justizia eta erreparazio eske

Kerman Villate Beitia gasteiztarraren hilketak izango dute mintzagai: zer gertatu zen, hilketak izandako ibilbide judiziala, Gasteizko Udal Gobernuaren jarrera edota gaia zertan den egun. Gogoan izan, Villate Gasteizko Mitika dantzalekuko atezain batek jo eta hil zuen iazko otsailean. "Justiziak eta erakundeek 'erantzun desgokia' eman dietela uste

dute, eta ez dela babestu Kerman Villateren defentsa eskubidea. Espero dute erakundeek 'berrikusi eta zuzendu' egingo dutela Kermanen heriotzari emandako erantzuna. Jarduerak bultzatuko dituzte, egian, justizian eta erreparazioan oinarrituta".

Saioa euskaraz izango da

Kermanen senide eta lagunek aipatu hilketaren egia argitu, gizarteratu eta justizia eta erreparazioa eskatzeko Egia Kermanentzat bilgunea osatua dute. Bertako kide eta hildakoaren guraso Arantzazu Beitia eta Roberto Villate izango dira saioko hizlariak. Saio irekia euskaraz izango da, gasteiztarrak itzulpen zerbitzuarekin. Gaiak informazio gehiago jaso daiteke egia.kermanentzat.eus atarian.

Bilguneak eskualdean eskainiko duen solasaldi bakarra izango denez, usurbildarrak ere gonbidatu dituzte Borobileen Elkartetik hilaren 22ko solasaldira.



Bardozeiko Xarnegu ikastolako guraso eta kantu-jirako kideak bisitan etorriko dira.

Iraileko kantu-jira berezia izango da

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak aste hasieran ekin zien entsegu saioei, udako etenaldiaren ostean. Aurrerantzean, astelehenero bilduko dira Agerialden arratsaldeko 18:00etan. Hilaren 26rako antolatu dute, bestalde, ikasturte berriko lehen kantu-jira. 12:00etan abiatuko dira ohi

bezala, Mikel Laboa plazatik. Saio honetan, ordea, bidelagun bereziak izango dituzte. Izan ere, Nafartarrak taldekoen eskutik, Bardozeiko Xarnegu ikastolako guraso eta kantu-jirako kideak bisitan etorriko dira Usurbilera larunbat horretan eta hitzorduan parte hartuko dute.

"Ombuaren itzala", Sutegin

Pello Mari Otaño (Zizurkil, 1857-Rosario, Argentina, 1910) olerkari eta bertsolari erreferentearen bizitzaren azken bi hamarkadak jasotzen ditu "Ombuaren itzala" izeneko filmak. Usurbilgo Udalak irailaren 27an proiektatuko du, arratsaldeko 18:30ean hasita Sutegiko auditorioan.

Sarrerak 3,50 eurotan eskuratu ahalko dituzue aldezturik, usurbilkultura.eus plataforman. Ikus-entzunezko lan horren zuzendari, Otañoren Zizurkilgo herrikide eta aktore ezagun Patxi Bisquert kultur-etxeko auditorioan izango da filma aurkezten.

Bankako Menditarrak Kalezarren

Usurbigo Euskal Kantu Taldekoen eskutik bisitan izan genituen 2024ko abenduan. Bueltan datoz, oraingoan, Kalezarko Belmonte Auzo Elkarteko gonbitarekin. Irailaren 26an, arratsaldeko 17:30ean Bankako Menditarrak taldeak kontzertua eskainiko du Pelaiotenea atariko plazan. Eurria bada, Pelaiotenea barruan egingo dute ekitaldia.



Irailaren 26an arituko dira kantari.



Gipuzkoan 157 ekintza antolatu dira 2026ko Ondarearen Europako Jardunaldien baitan. Horieta lau Usurbilen egingo dira.

Lau bisita gidatu, 2026ko Ondarearen Europako Jardunaldien baitan

650 Usurbil Bizi herri egitasmoa lau bisita gidatu eskainiko dira 2026ko Ondarearen Europako Jardunaldien baitan. Guztira, 157 ekintza antolatu dituzte herrialde mailan, zikloaren hamargarren edizioan.

ARITZ LASARTE

"Ondarea biziberritu, babestu eta bere etorkizuna berriz irudikatzeko" gipuzkoarren esku jartzea dute xede nagusia, Ondarearen Europako Jardunaldiek. "Gure eskuetan" aldarria hautatu dute hain zuzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako zikloaren hamargarren ediziorako. Europako Kontseiluak susta-

turikoak dira, Europar Batasunaren lankidetzarekin eta erakunde gehiagoren parte hartzearekin. Ekimenak "Ondare Kulturalari buruzko sentsibilizazioan sakondu nahi du".

Europako Kontseiluak 1991. urtean abiarazitako egitasmoak "gure ondareari eragiten dioten arrisku desberdinen kontzientzia sortzen lagunduko dute,

ingurumeneko, gizarteko eta teknologikoko presioek eraginda, eta geratzen den ondarea nola kontserbatu eta baloratu aztertzeak hausnarketa sortuko du".

Edizio honetako eskaintza "arriskuan dagoen kultura-ondarearen inguruan egituratzen da, hiru lan-ildorekin: biziberritzea, eustea eta berriz irudikatzea", antolatzaileen esanetan.

157 ekintza antolatu dituzte udazken honetarako, irailetik azarora, Gipuzkoako 36 udalerrietan; tartean, azken urteotan gertatu bezalaxe, Usurbilen. Udalerri honetan, 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak antolaturiko lau bisita gidatu ziklo honen baitan eskainiko dira; urriaren 24an lehenengoa, eta gainerakoak, azaroaren 7an, 8an eta 22an.

Ondarearen Europako Jardunaldiak

Urriak 24, larunbata

- 11:00-12:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko aukera, organo erakustaldia-ekin.

Azaroak 7, larunbata

- 11:00-12:00 Gerraren Memoria ibilbidea.

Azaroak 8, igandea

- 11:00 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita.

Azaroak 22, igandea

- 11:00 Museo Irekia famili-entzako KRII kolektiboarekin.

Informazio gehiago eta erreserbak:

650usurbilbizi.eus

**JARDUNALDI
HAUEN BITARTEZ,
ONDARE
KUTURALAREN
INGURUKO
SENTSIBILIZAZIOAN
SAKONDU NAHI DA**

ARANKA
BERRIKUNTZAK

· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra

606 37 21 05 USURBIL

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN

943 360 321

noaua@publizitatea.eus

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

urdaintzi@euskalnet.net

IT-ak
egiten dira

649 43 54 75
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK



Etxebizitza Bulegoa Kale Nagusia 43, behea helbidean aurkitzen da, Gizarte Zerbitzuen aurreko egoitzan.

Etxebizitza Bulegoa martxan da

Usurbilgo Udalak Etxebizitza Bulegoa ireki du gizarte zerbitzuen aurreko egoitzan. Uztailetik martxan egon arren, herritar guztientzat zabalik izango da aurrerantzean.

ARITZ LASARTE

"Etxejabeek zein maizterrek edo etxe bila dabilen edonork jo dezake bertara", adierazi zuen Iratxe Begiristain udal zinegotziak zerbitzu berria aurkezteko, iragan ostiralean eginiko agerraldian. Berarekin batera ziren, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesa eta Ioritz Rasero Ortuzar, Zabalduz-eko kidea.

"Bulegoak doako aholkularitza zerbitzu pertsonalizatua eskainiko du bitartekaritzarekin alokairuko bermeen eta dirulaguntzen zein onura fiskalen berri eman eta dokumentazio eta tramiteei buruzko zalantzak eta galderak erantzungo ditu", zehaztu zuen Begiristainek.

Doako aholkularitza zerbitzua izango da. Baliatu nahi duenak aurrez hitzordua eskatu eta eskaera horretan kontsultatu nahi den gaia zehaztea galde-

gin dute, hartara, aholkularitza saioa lagungarria izateko.

"Neurri integralak"

Alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak "udal etxebizitza politikari lotutako pauso berri" gisa definitu zuen Udal Etxebizitza Bulegoaren irekiera. Bestelako neurriak ere hartzeko asmoa azaldu zuen, "etxe hutsak bide horretan justifikaziorik gabe mantentzen diren kasuetan. Neurri fiskalak aztertzen ari gara etxe horiek alokairura ateratzera bultzatzeko".

Baina ez da izan norabide horretan emandako urrats bakarra. Udalak etxebizitza plan bat du hiru urteotarako, "neurri integralak jasotzen" dituen, garai zailotan, "Udalaren etxebizitza politika indartzeko" helburuz. Testuinguru horretan, Udalak Zabalduz kooperatiba kontratatu du 30.000 euroren truke, elkarren osagarriak diren

hiru lan-ildoetarako; batetik, aipaturiko Udal Etxebizitza Bulegoa irekitzeko. Bigarrenik, "etxebizitza hutsen inguruko diagnostikoa" osatzeko eta horren bidez, "etxebizitza horiei erabilera emateko. Legeak berak zehazten du, lehenetsi egin behar dela etxebizitzaren erabilera soziala. Erabilera sozial hori lehenesteko etxebizitza horiek erabiltzea, merkaturatzea eta ahal bada, alokairu publikora igarotzeko neurriak eta kudeaketak egingo ditugu", iragarri zuen alkateak.

Oso garrantzitsutzat jotako hirugarren lan-ildoak; udalaren

**"ETXEBIZITZA
BULEGOKO
AHOALKULARITZA
ZERBITZUA DOAKOA
IZANGO DA"**

jabetzako hemeretzi etxebizitzetako bizilagun herrikideei "akonpainamendu soziala egitea bada beste asmo edo proiektuetako bat". Alkateak gogora ekarri moduan, "aspalditik ditu udalak etxebizitza hauek eta, beraz, esango nuke, urte luzetako ezagutza badugula etxebizitza horien inguruan". Usurbilgo herria soziologikoki aldatzeak etxebizitzon erabiltzaileen profila ere aldatzea ekarri du. Etxe bat alokairuan hartu edo erostea "jende askorentzat zaila bada, etxebizitza horietan bizi direnentzat are eta zailagoa edo kasik ezinezkoa bihurtzen da". Ondorioz, "gertatzen ari da, bost urteko epealdia igarota, ezin etxebizitza horietatik atera eta horrek kudeaketa arazoak eragiten ditu. Askoren kasuan ere, integrazio komunitarioko arazoak ere baditugu" bai Usurbilen zein inguruetan egiturazkoak bihurtzen ari direnak Solaberrieta ren esanetan. Arazo horiek "neurri handi batean, etxebizitza merkatuaren egoerak berak eragindakoak" dira.

Ondorioz, beharrezkotzat ikusi da etxebizitzon kudeaketa eredu aldatzea, "ondorioz-tatu dugulako, etxebizitzaren kudeaketa administratibo hutsak egiteak ez duela bermatzen, etxebizitza horietan bizi diren pertsonen ongizatea eta kohezio hori sortzea. Laguntza sozialerako eta komunitarioko zerbitzu bat gehitzeak, ordea, ulertzen dugu bizikidetzaren dotu dezakeela, egon daitekeen isolamendua saihestu dezakeela. Hori da martxan jarri dugun lan-ildo honen helburua".

Tentsio handiko eremuan

Abiapuntua, Usurbil etxebizitza merkatuko tentsio handiko eremuan dela dator. Etxebizitza arloari lotutako eskumena Eusko Jaurlaritzarena izan arren, "ulertzen dugu Udaletik ere badugula zer eginga eta zer esana", horren adibide Udalak iragarritako lerrootako proiektuok. Izendapenak hiru urterako iraupena du.

Izendapen hori eskuratzeko bi baldintza ezarriak ditu 12/2023 legeak: "azken bost urteetan alokairuaren prezioa KPI baino hiru puntu gehiago igo izana eta bestetik, herritarrek euren diru-sarreraren edo errentaren %30 baino gehiago bideratzea etxebizitzari lotutako gastuetara".

Usurbilek lehen baldintza betetzen zuen. Bigarren baldintza gutxiatik ez zuen betetzen Usurbilek, izendapen hau eskuratu aurretik. Herritarrek haien diru-sarreraren %28 bideratzen zuten etxebizitza gastuetara. Bi baldintzotako bat betetzea aski zuen udalerrri honek tentsio handiko eremuan sartzeko. Horrez gain, Udalak herri honetako etxebizitzari lotutako diagnostika eta hiru urterako plangintza osatu behar izan zituen. "Plan horretan aurreikusitako hainbat eta hainbat neurri martxan jartzea da orain Udalaren asmoa"; tartean, lerrootan aipaturikoak.

HAPOa indarrean sartzeaz

Horrekin batera, udalbatzak berriki onarturiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren azken dokumentua behin betiko onetsi du Foru Aldundiak. Herri honen etorkizunaren



Zabalduz kooperatibak kudeatuko du Etxebizitza Bulegoa.

antolamendua zehaztuko du, besteak beste, etxebizitzaren arloan.

"Hurrengo hamabost urteotarako, Usurbilen 715 etxebizitza berri eraikitzeak aukera zabaltzen du", alkatearen esanetan. Baina "horiguztia, modu ordenatu, kontrolatu eta Usurbilgo beharren arabera garapen bat eman dadin, HAPOaren jarduketa programa edo plangintza bat jaso genuen. Usurbildarren beharrei eran-

tzuteko eta garapen eta hazkuntza kontrolatu bat egiteko tresna da jarduketa programa hori".

Etxebizitza berriak eraikitzea "ez da irtenbide bakarra"

Lurjabeekin Udalak eginiko lanketen ondorioz adostutako hirigintza hitzarmenei esker, "etxebizitza horietatik %62a, datu azpimarragarria, merkatuz kanpoko etxebizitza babestuak izango dira; %48 babestutako

etxebizitza sozialak eta %14a tasatuak".

Halere, "guk argi dugu, etxe berriak eraikitzea ez da etxebizitzaren arazoari aurre egiteko irtenbide bakarra eta horretan ere indarra egin nahi dugu". Hala, aipatu etxebizitza planak gaiari "modu integral batean aurre egiteko neurriak etalan-ildoak jasotzen ditu", lehentasunezkoak direnak udal gobernu taldearentzat; horien artean, "gaur egun eraikia dagoen bizitegi parkean esku hartzea, bizitegi parke hori optimizatzea eraikuntza kontrolatu baten beharrarekin uztartuta, gure herriaren garapen jasangarri eta kontrolatua bermatzen duelako eta pertsona guztientzako zerbitzu publikoen kalitatea mantentzeko aukera ematen digulako".

Etxebizitza Bulegoa

Aurrez aurreko ordutegia:

• Asteazkenetan: 14:00-19:00.

• Ostiraletan: 9:00-14:00.

Telefono bidezko arreta:

• Astelehenetik ostiralera, 9:00-15:00.

• Telefono zenbakia: 722151640.

E-posta helbidea: etxebizitzabulegoa@usurbil.eus

166 etxe huts Usurbilen

Etxe hutsei begira da Udala. "Jakin nahi dugu zehatz-mehatz zein diren hutsik dauden etxebizitzaren egoera, zergatik dauden hutsik. Hutsik egotearen arrazoiak jakinez gero, arrazoi horietan eragiteko aukera gehiago ematen digulako. Arrazoi horien berri emateko etxebizitza hutsen jabe diren herrikide edo pertsona gehienekin harremanetan jarri da Udala eta beraz, une honetan, eskuartearen bidez informazio baliotsudun diagnostikoa, horren araberrako neurri eta politikak martxan jarri ahal izateko".

Zabalduz kooperatibak egin du bizilagunik gabeko etxebizitzari buruzko azterlana; "udal errolda, foru katastroa eta ur-kontsumoa gurutatu" dituzte, Ioritz Raserok azaldu-takoaren arabera. "Udalaren kalkuluen arabera, eta legeak ezarritako irizpideak aintzat hartuta", 166 izan daitezke herrian egon daitezkeen etxebizitza hutsak.

Eskuragarri egon daitezkeenak, 99

Semaforoaren sistema bidez, hiru multzotan sailkatu dituzte bizilekuak, koloreen arabera. Gorrian daude, "epe labu-

rrean erabili ezin diren etxeak", 166tik, 7. Horian dira gehienak (%60a), 99 hain zuzen. Herentzia, beldur edota beste hainbat arrazoi tarteko, "eskuragarri egon daitezkeenak" dira. Azkenik, eremu berdean daude 60, %36a, "jada mobilizatuak izan diren etxeak, bai alokairuan jarri direlako azken urte honetan, edo saldu direlako edo salmentan direlako".

Datuon arabera, bistan denez, etxebizitza hutsen kopuru handiena eremu horian dago. "Uste dugu bitartekaritza eta konfiantza eskainiaz, etxebizitzok merkaturatzeko aukera handiak daudela". Raseroren esanetan, "Udal Etxebizitza Bulegoak nahi duena da azaldu eta era-

kutsi, zeintzuk diren dauden bermeak etxea segurtasunez alokatzeko".

Dagoneko gutun bana helarazi diete 166 etxebizitza horien jabeek, "azaldur nola detektatu den bere etxea posible dela hutsik egotea. Dei bat jasoko zutela, azaltzeko zergatik dagoen hutsik edo ez".

Etxejabeek eskertu egin dute "hartueman hau"

Raserok ekimenak izandako harrera oso ona nabarmendu zuen. "Eskertu egin dute hartueman hau. Badaude etxejabe batzuk kontaktuak jarri izan direnak informazioa eskatzeko, alokairuan jartzeko dauden baliabideen inguruan".



Irailaren 4an, Donostialdeko alkateak elkartu ziren. @RTVEPAISVASCO

Etxegabetasunari elkarlanean aurre egiteko prest

Irailaren 3an Donostia, Errenteria, Pasaia, Orio, Hernani, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Usurbilgo alkateak batu ziren.

ARITZ LASARTE

Etterik gabeko pertsonen egoera aztertzeko Donostiako eta hiriburuak mugakide dituen udalerrietako alkateak bildu ziren irailaren 3an; zehazkiago esanda, Donostiako, Errenteriako, Pasaiaiko, Orioko, Hernaniko, Astigarragako, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo alkateak. Hiriburuko alkatearen esanetan, gai horri erantzun bateratua emateko prestasuna nagusitu zen bilera hartan. Argi dute, "guztion artean eman behar diogula erantzuna etxegabetasunari". "Diskrezioz eta profesionaltasunez" lankidetzan jarraitu asmo dute.

Afari Solidarioen taldeak asanblada irekia deitu du

Iaztik, Donostiako Kale Afari Solidarioak (KAS) ekimenarekin bat eginiko Usurbilgo herritar taldea jardunean aritu da, laguntza bildu, ehunka otordu prestatu, Gipuzkoako hiriburura garraiatu eta kalean bizi diren hainbat pertsonen afariok helarazten. Usurbilgo KASeko kideek asanblada irekia deitu dute ostiralerako, irailaren 18rako, arratsaldeko

18:30etan Potxoenean. "Bertan, orain arte egin dugun bideari eta aurretik datorkigunari buruz jardungo dugu", NOAUA!-ra helarazitako mezuarekin jakinarazi dutenez.

Hitzorduan parte hartzeko gonbita egin dute. "Egoeraren berri jaso eta aurrera begira esku bat botatzeko prest dagoen herritar orori dei egiten diogu", adierazi dute. Horregatik, "bakarrik, lagunekin, senideekin... animatu. Batu elkartasun ariketa erraldoira", egin dute gonbita.

Asanbladaz gain, Usurbilgo KASeko kideek aurreratu dutenez, "iraileko egunen batean diru-bilketa egiteko postua jartzeko asmoa dugu". Hilaren 18ko asanbladan erabaki asmo dute noiz eta non egingo duten laguntza bilketa hori.

"ORAIN ARTE EGIN DUGUN BIDEARI ETA DATORRENARI BURUZ JARDUNGO DUGU"

KALE AFARI SOLIDARIOAK USURBIL

Eskuzaitzetara autobus zerbitzu berria

Donostia eta Zubietako Eskuzaitzeta lotuko ditu, irailaren 21ean abiaraziko duten BU15 linea berriak.

ARITZ LASARTE

Uztailean iragarritakoa beteko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketa" sailak. Donostiatik Zubietako Eskuzaitzeta helatzeko nahiz bertatik itzultzeko autobus zerbitzu berria martxan jartzea onartu zuen irailaren 8ko Diputatuen Kontseiluak. Irailaren 21ean jarriko dute martxan.

Linea berriak geltokiok izango ditu: Anoetako Zorroaga pasealekua, Galarreta (Jauregi, 78), Errekaldeko Topoaren geltokia ondo (Errekalde hiribidea), Bugati (Arrapide pasealekua), Zubietako Real Sociadadeko instalazioak, Zubietako espetxea eta Eskuzaitzeta I. BU15 izena izango du. Lehen zerbitzua goizeko 5:30etan abiatuko da eta 6:05ean Eskuzaitzetatik. Orduero eta astelehenetik igandera eskainiko da zerbitzu berri hau. Azken autobusak 21:30etan abiatuko dira Donostiatik eta 22:05ean Eskuzaitzetatik. Honenbestez, hamazazpi zerbitzu eskainiko ditu linea berriak noranzko bakoitzean.

Mugikortasuneko, Turismo-ko eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Azahara Domínguez en esanetan, "linea ez da soilik sortu industrialdeko langileei zerbitzua emateko —gero eta gehiago baitira—, baita espetxera joan behar duten profesional, elkarreetako ordezkari eta senideei erantzuteko ere; era berean, orain arte existitzen ez zen garraio publikoko alternatiba bat eskaintzeko ere bada, Zu-



BU15 izena izango du linea berriak.

bietara, batez ere Sanseren edo Realeko emakumezkoen taldearen partidak ikustera joaten diren Realaren zaleentzat".

Geralekuak, ordutegia eta orohar, zerbitzu berria abiarazteko lanak Eskuzaitzetako enpresekin, "baita bertako elkarte eta erakundeekin ere" adostu dituztela adierazi dute Foru Aldunditik. Ildo horretan, "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GTLA) kanpaina bat jarri du martxan, eta industrialdeko enpresetara stand bat eramango du, langileek MUGI txartela eskatu ahal izan dezaten, oraindik ez badute, eta, horrela, garraio publikoaren erabilera sustatzeko".

Ordutegi berriak, laster

Linea berri honen nahiz gainerako tren eta autobus ordutegi zerbitzuen eskuorri txikia, poltsikoan eramateko modukoa kaleratu ohi du NOAUA! K.E.-k. Aurtengoa, laster jasoko duzue.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Kirol-esparruko gazteei edo irakasleei alokatzeko gela bat daukat Usurbilen. 658706447

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943 498 917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529.

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahal, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Gauetz pertsona helduak zaintzeko lan bila dabilen neska bat naiz. Titulazioa eta 25 urteko esperientzia daukat. 609647728.

Plantxa-zerbitzua edo laguntzaile lanetan orduka aritzeko lan bila dabilen emakume bat naiz. 614349021.

Titulu soziosanitarioa eta erreferentziak dituen emakume bat naiz eta zaintza

lanak, interna moduan zein orduka aritzeko lan baten bila nabil Usurbil edo inguruan. 618814363.

Etxeko lanetarako nahiz zaintza lanetarako lan bila nabil. 676 282 206.

Garbiketa eta zaintza lanak egiteko prestutasuna eta esperientzia daukat. Interna moduan, orduka, gauetz edo egunez, astebukaeratan. Ikasketak homologatuak eginda. Harremanetarako: 624082492

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

BESTELAKOAK

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

90 zm-ko ohe artikulatu bat koltxoia-rekin eta besaulki edo butaka artikulatu motordunak dauzkagu salgai. 605280119.

Sei eskubaloi neurketa Oiardon

Oiardo kiroldegian

Irailak 19, larunbata

- 10:30 Jubenil mutilak, Gipuzkoa: Usurbil KE-Arrasate
- 12:15 Infantil mutilak, Gipuzkoa: Tolosa Eskubaloi CF
- 17:30 Senior mutilak, 2. Territoriala: Usurbil KE-Munttarpe
- 19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala: Saizar Usurbil KE-Uharte

Irailak 20, igandea

- 09:00 Infantil neskak, Gipuzkoa: Usurbil K.E.-Pulpo EK
- 12:30 Kadete neskak, Gipuzkoa: Usurbil K.E.-Ereintza Beissier

Oiardotik kanpo

Irailak 19, larunbata

- 12:00 Jubenil neskak, Territorial maila, Hernanin: Hernani-Cortes Usurbil KE

- 15:00 Jubenil mutilak, Euskal Liga, Zumaian: Pulpo EK-Usurbil KE
- 16:30 Kadete mutilak, Euskal Liga, Zumaian: Pulpo EK-Usurbil KE

Oharra:

- Senior nesken 2. Territorial-leko taldeak irailaren 27an abiatuko du liga.


Ate irekien saioa, Dantza Garaikide taldearen eskutik

"Aurtengoan ere Dantza Laborategia martxan jarriko dugu Usurbilen urritik aurrera!", iragarri dute. Izen-ematea ireki aurretik, ordea, haien dinamika ezagutzera gonbidatu gaituzte. Horretarako, ate irekien saioa antolatuta dute irailaren 23an, 19:00-20:30 artean, Oiardo kiroldegiko dantza gelan.

ZORION AGURRAK



Zorionak Manex! Irailaren 17an, 4 urte beteko dituzu! Egun polita pasako dugu ziur. Ondo-ondo pasa eta jarraitu zure irribarre horrekin. Marrubizko pinta-pinta-ren 4 muxu handi handi, familia osoaren partez!



Zorionak! Ezkondu zireneko 60. urtemuga bete dute Marije Goldarazena eta Asintxio Pagolak. Zorionak familia osoaren partez!

HILDAKOAK



Jesus Maria Arruti Larrunbide

Irailaren 11n hil zen, 83 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 18

DONOSTIA Afari Solidarioen taldeak deitutako asanblada

18:30 Potxoenean.

SANTUENEA Jaiak

Txupinazoa, buruhandiak, txaranga, sardin jana, auzo afaria, Dj Gorka Mendi...
Egitarau osoa, 13. orrialdean.

LARUNBATA 19

USURBIL "Oroimenaren soka eten ez dadin" ekitaldia

Usurbil 1936 elkartearen eskutik.
20:00 Artzabalgo zelaian.

SANTUENEA Jaiak

Puzgarriak, buruhandiak, haurren bazkaria, mus txapelketa, txokolatada, Lauburu konpartsa...
Egitarau osoa, 13. orrialdean.

IGANDEA 20

SANTUENEA Jaiak

Esnadeia Jon&Joneskin, umeentzako tailerrak, toka, zantantzarrak, Lekim magoa, auzo bazkaria, buruhandiak, piper dastaketa...
Egitarau osoa, 13. orrialdean.

ZUBIETA Enrike Abril errebote txapelketa

09:00 Zubieta 2-Luzean
11:00 Zubieta 1-SPUC.
Zubietako Errebote plazan.



Usurbil 1936 memoria taldeak ekitaldi bat egingo du larunbat honetan Artzabalen.

"Oroimenaren soka eten ez dadin" ekitaldia

Errepublikaren kontra matxinatutako kolpistek Usurbil hartu zuteneko 90. urteurrenaren harira, Usurbil 1936 elkarteak ekitaldi berezia prestatu du larunbat honetarako. Garai hartan herrian gertatu-

tako hainbat pasadizo ekarriko dituzte gogora

Irailak 19 larunbata

- 20:00 Artzabalgo zelaian (euria balitz, Sutegin).
- Antolatzailea: Usurbil 1936.

Afari solidarioen taldearen deialdia

Iaztik, Donostiako Kale Afari Solidarioak (KAS) ekimenarekin bat egini-ko taldea jardunean ari-
tu da Usurbilen, laguntza bildu, ehunka otordu prestatu, Gipuzkoako hiriburura garraiatu eta kalean bizi diren hainbat pertsoneri afariok helarazten.

Usurbilgo KASeko ki-deek asanblada irekia

deitu dute ostiral hone-tarako, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean. "Bertan, orain arte egin dugun biderei eta aurretik datorkigunari buruz jardungo dugu", NOAUA-ra helarazitako mezua-rekin jakinarazi dutenez. "Aurrera begira esku bat botatzeko prest dagoen herritar orori dei egiten diogu!", adierazi dute.

Bisita gidatuak

Irailak 20, igandea

11:00-13:15 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita.

Irailak 23, asteazkena

10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Irailak 25, ostirala

10:00-11:30 Zaintza-ren Usurbil bisita gidatua.

Informazio gehiago eta erreserbak:

650usurbilbizi.eus

NOAUA! Kultur Elkartearen 30. urteurrena

30 urte bete ditu NOAUA! Kultur Elkartearen. Uztailaren 18ko "Ikimilikilik Vol.2" ikuskizunaren ondotik, bidelagunokin ospatu nahi du urtemuga borobil hori, irailaren 26an.

"Lau Haizeetara" aldarriean, Potxoenea ondoko Olanoe-
nea plazan egingo da ospakizuna, arratsaldeko 19:00etan.

Zuen iragarkia hemen

publizitatea@noaua.eus
747-486-835

lnaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@lnakiliturgintza.com - www.lnakiliturgintza.com

600 024 825

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil





IREKIERA BERRIA

Ostirala 18
8:30-14:00

📞 629 30 74 26

RUBIO
Arraindegia



ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-23:00 Igandetik Ostiralera
8:00-00:00 Larunbatetan

*Sukaldea 22:00etan ixten da

Kaleazar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027



HANI
MÓVILES

MUGIKORREN KONPONKETA

Zure mugikorra konpontzen
dugu, zu zaintzen zaitugu.

📞 663 268 434

📞 843 679 098



Pantalla aldatzea



Bateria aldatzea



Ura sartu da



Software arazoak



BERMEA



KONPONKETA
AZKARRAK



KALITATEA



KONFIANTZAKO
ZERBITZUA

Lau haizetara

30 URTE OSPAKIZUNA
Irailak 26, 19:00tan

OLANOENEA plazan
Eguraldi txarra bada
Askatasuna Plazan

NOAUA!ren bidelagun izan zareten bazkide,
irakurle, eragile eta lagun guztiak GONBIDATU nahi zaituztegu.
Ospakizun berezia, urte hauetan guztietan eraiki dugun guztia elkarrekin ospatzeko.

noaua

